



a(e)rdietsi 'lortu, jadetsi'	«...eginkizun hau ia odolik ixuri gabe ardietsi zelako.»	(66)
agitutakoa 'gartatutakoa'	«Euskoen dukeak jakinarazi zion Aberasturiko semeari Gabarreta hirian agitutakoa.»	(166)
akidura 'indargabetasun, ahuldura'	«Euskotarrak adorez eta kemenez birgizondu ziren eta francotarrak akidura batean erori.»	(173)
akort 'ados, hitzartu'	«—Zure proposamenarekin akort naiz, euskaldunen buruzagi prestua.»	(110)
aldarte 'gogaldi, umore'	«...—ekin zion zaldunetako zaharrenak aldarte onez.»	(36)
alor gizen 'soroa, lurralde emankorretan'	«...baina,soro eta alor gizenetan urri zutena, Ahuñamendi hegaletako bazka eta larre ederretan zuten...»	(27)
anai-ordea 'ugazanaia, nagusianaia'	«Iepa!—erantzuten dio anai-ordeak nabasiki.»	(33)
antxikika 'lasterka, galapadan, korrika'	«...akitaniarrak txautuak izan ziren eta gudu-lerro guztietatik erretiradan zetozen antxikika (...) ihesi deitoragarri batean.»	(168)
antzetsu 'trebe, leber'	«Iaioenak bereiziz,sailburuak hautatzen zituen eta sailburu antzetsuenak eta burutsuenak bereiziz...»	(103)
antzua 'agorra, fruitu gabe'	«Zoritxarrez elkarrizketa antzuaren berri jakin zuten guztiek ez zeuden prest gure Dukerriko eusko-buruzagiaren agindua errespetatzeko.»	(152)
arba igar 'arbasta lehor, zotz'	«Ixtetek irazeki zuen sua arba igar batzuekin...»	(37)
ardietsi 'eskuratu, lortu'	«Ez bakarrik anaia bezala maite nauelako,baizik eta oreka bat ardietsi nahi duelako...»	(122)
arestion 'oraintxe bertan, une honetantxe'	«...baina Elusaberrin gertakari handiak izan dira arestion,euskaldunen onerako.»	(92)
arran 'zintzarria, ezkila'	«...ardiak tintatzen,arranak ipintzen, zakuak betetzen.»	(28)
arras 'erabat, osoro'	«—Erantzun zion Dagobertok,bere anaiaren azken hitzok arras mindurik.»	(134)
asaba 'arbaso, aitalehen'	«Beraz, ez zeuden asabak zanpatzaileak ihes egiten uzteko.»	(173)
atotsi 'abegi ona, harrera ona'	«Francotarren hiriburuan besta handitan atotsi zuten Akitaniarren erregea eta Dagoberto berbera...»	(127)
axanpa 'iskanbila, abarrotsa'	«...axanpetan eta larrikaretan gehiago bizi ez nadin...»	(74)
azkonar 'ugaztun haragijale zuri-beltza'	«Erbi,katagorri,erbinude,azkonar eta halakoxeak ere ez zitzaizkien falta.»	(35)
aztarrikatu 'ikertu'	«...eta zantzuak ongi aztarrikatuz ,pentsatu zuen bere eginkizuna Clichyn ez zela amaitu...»	(137)
batto ere 'bat ere ez'	«Nik ez dut ilobarik,batto ere.»	(82)
bederik 'bederen'	«...Dagobertok berberak agindua izan da edo bederik atseginez ikusi du agindupekoek egina Erregeren ederra irabaztearren.»	(156)
bekaitz 'ondamua, inbidia'	«...etxeko ohe goxo eta biguinen bekaitzik gabe...»	(42)
bidazti 'bidaiari,ibiltari'	«Bidaztiren bat galdua zebilek oihanean eta arratsa...»	(34)



bipil 'izukaitz, adoretzu'	«Orain, gudari bipil eta buruzagi iaioak...»	(61)
bixka 'gogo, nahia'	«...begi beltzarantxoan bizitasunak bazuten bixka liluragarririk...»	(51)
dohainik 'oparitu, debaldekoa'	«...ez dezkatte eduki zure esperientziarik, gudarien errespeturik eta aginte dohainik.»	(95)
dohakabe 'zorigaitzekoa'	«Horrela heldu ziren Elusaberrira eta Enekok Cariberto dohakabearen heriotz lekuko paregabea Amandoren oinetan jarri zuen.»	(140)
donetsia 'saindua, bedeinkatua'	«Onentxoan bildu ziren haritz donetsiaren kerizpean.»	(67)
duintasun 'begirunea, errespetu'	«...haren botereari eta duintasunari zastakorik mingarriena eginaz.»	(156)
eguantza 'egunabarra, egunsentia'	«Goizean goiz, eguantza hasi orduko...»	(31)
ene motzean 'nere iritzi motzean'	«Aitzitik, ene motzean, aditzera eman dio gure dukerriaz jabetzen trankil utziko diola...»	(105)
eratxi 'bota, ulitu'	«...agintaritzatik eratxi dugu eta Euskalerriko mugetatik lekore jaurti.»	(92)
erdietsi 'eskuratu, lortu'	«Ez bakarrik anaia bezala maite nauelako, baizik eta, oreka bat ardietsi nahi duelako»	(122)
ezkontza-uztarri 'ezkontza-lotura'	«...eta urragaitza izan dadin beharrezkoa omen da ezkontza-uztarriz lotzea.»	(111)
ezkorta 'artegi, abeletxe'	«...gure mutilak ardiak ezkortara biltzen hasi zirenean...»	(32)
gailentasun 'gorentasun, nagusitasun'	«Hiletak neurritz gaineko gailentasunez ospatu zituzten.»	(136)
heztu 'menperatu'	«—Eta hiri zer? Herri madarikatu eta errebel hori hezteko indarrak sobratuko litzaizkikek, batik bat nire laguntzarekin.»	131
higuingarri 'gogainkarria, nazkagarria'	«Nik ez nuen lan hori egin gura, higuingarri zitzaidan, baina beldurtu egin nintzen.»	(151)
horail 'ilehoria, horia'	«Adatsa, horail kolorea, luzea eta txit ongi zaindua zuen...»	(109)
hoxko 'hozki, hotz samar'	«...edo sargoriak eginarren, gauez hoxko izaten zen...»	(36)
iharra 'idor, lehor'	«Hainbestean amaitu zen konponbide batera iritsi ahal izateko elkarrizketa iharra.»	(152)
iskilu 'borrokarako arma'	«...Andeka eusko buruzagi gailenaren iskilu trebe eta azkarrek...»	(19)
itzain 'itaurreko, itaurlari'	«...Apika, itzain izan ala uztarpean ibili berdin dela...»	(14)
jasoberri 'eraiki berria, egin berria'	« Eneko jaio zen garai hartan, ordea, jasoberri, lirain...»	(10)
jori 'oparoa, naharoa'	«...Garona arteko ordeka zabal, jori eta gizenen...»	(61)
kaidun 'nasa duena, portua duena'	«...beharrezkoa zen kaidun hiriaz berriro jabetzeko...»	(70)
kamaina 'ohe antzeko hamaka'	«...eguantza hasi orduko, kamainatik jaiki, ardiak jaitsieta...»	(31)



kapare 'aitonen semea, noblea'	«—Lotsatuko nauzue, zaldun kapareok!»	(96)
katigu 'gatibu ,preso'	«Katigu gehienak bezala, seguru aski, bertan akabatuko zuten.»	(21)
laidogarri 'iraingarri, apalgarri'	«Bederen, hire burua ezkontza laidogarri batez lotu ez bahu, errezago litzaiekek lokarri makurgarri eta galgarriok urratzen.»	(129)
lain gari 'gari nahikoa, adina gari'	«...aldi hartako nekazariak, urterako lain gari, babarrun...»	(13)
laingoa 'adinekoa'	«Hark etxe egoki bat, zure alabaren laingoa,aurkituko lieke Garaziko herriren batean eta beste bat ama-semeen zaingo taldearentzat.»	(145)
lakatz 'morkots, erlaiz'	«...ez zen lantegi erreza mendimutil oihes eta lakatzok gudugintzan trebatzen.»	(103)
legerri 'nazio, sorterrri'	«...bere agintariekin baina legerri bakar bat osatuaz...»	(65)
malkortsu 'arrotsu, oldartsu'	«Ahuñamendiko malkortsu eta erraldoiaren barneminetan sartuta...»	(9)
malmutza 'maltzurra'	«...baina Dagoberto bere anaia malmutzak pozoinez hil berri du.»	(155)
mara-mara 'jausi, leuna'	«...barre egin zuten mara-mara, zoriona zerion farre gozo eta alaia.»	(75)
maukari 'matxunga, beso gainekoa'	«...lepora loturik, maukarik gabeko tunika motz edo bizkar estalgarri bat larruzkoa»	(108)
moko egin 'pikoka aritu ,jan'	«Beraz, bazen aukera handik eta hemendik moko egiteko»	(17)
mukuru 'bete, pilatu'	«...ekin zioten borrokari,garaitzeko sinismenez eta sukarrez mukuru...»	(60)
nahas-nahas 'anabasa'	«...lehenen gaztaroko pozaldi,neke,atsegin eta atsekabeak nahas-nahas...»	(11)
naro 'ugari, jori'	«Bazituen,bestalde,mendi naroeak eman ohi dituzten aberastasun...»	(12)
oben 'bekatua, errua'	«Nire lagunek ez dute oben handirik ,nikeragin bainien hilketa horretara.»	(165)
oihes 'arlote, trokol'	«...ez zen lantegi erreza mendimutil oihes eta lakatzok gudugintzan trebatzen.»	(103)
olo 'ale, jangai'	«...babarrun, artatxipi eta olo ereinez gero...»	(13)
ondikotz 'tamalez, maleruski'	«—Ene gurasoak hil ziren,ondikotz!»	(83)
ondikotz 'zorigaitzez, tamalez'	«Bai.Eneko.Ondikotz! hala zara.»	(22)
orbeldu 'hostaildu, orbelez bete'	«...Otxanda,eta bazterrak orbeltzen ari diren aldi honetan...»	(56)
orpoz orpo 'urratsez-urratsa'	«...beste berrogeitamar gudari zadizko zetozen orpoz orpo.»	(154)
oturuntz 'janedana, elikadura'	«...handikiro ospatu zutela oturuntz bikain bat eginaz.»	(16)
otzana 'mantsoa apala'	«Aurpegiak otzana eta bakezalea zela salatzen zion...»	(16)



periltsu 'arriskutsua'	«Gutxien gutxieneko niri jakinarazi behar hidan pauso periltsu hori eman aintzinetik...»	(128)
pijo 'kementsua, ausarta'	«Eusko gudari pijoeta zangar haien helburua...»	(61)
pilpira 'taupada, bihotz zimikoa'	«Enekori pilpirak,hots,bihotzikarak eragindako malko...»	(80)
saildi 'izaki bi baino gehiagoz osatutako	«...sailburu antzetsuenak eta burutsuenak bereiziz, sail handiak eratzen eta tajutzen, hots, saildiak.»	(103)
sendoetsi 'gotorki, tenkor'	«...kapitulazio akorduaren arabera, sendoetsi zituen...»	(64)
tentekatu 'zutitu, goititu'	«...xondarraren erdian tentekatu zuten eta hari sokaz loturik Baronte dukea ipini zuten.»	(157)
txautu 'ezabatu, desegin'	«...eta bizi naizen artean, herri doilor hori, arraza madarikatu hori zapaltzen, txautzen eta desegiten saiatuko nauk.»	(130)
txautu 'ikuzi, garbitu'	«Tarraconense zeritzan lurraldea txehatuz eta txautuz.»	(87)
txehatu 'birrindu, zehatu'	«...Tarraconense zeritzan lurraldea txehatuz eta txautuz.»	(87)
txolarte 'aisialdi, laburra'	«...eta bere eginkizunetatik gainerako txolarteak ehizeari eta alkoi, aztore edo beste hegazti harrapakarien hezteari eman ohi zizkion...»	(102)
txondarra 'ikatza egiteko egur meta'	«Giza-arrotza opaldu behar zuten txondorraren erdian enbor bat tentekatu zuten eta sokaz loturik Baronte dukea ipini zuten.»	(157)
urtziri nahi dakiola 'Urtzik nahi beza'	«—Urtziri nahi dakiola. Esker mila eta zoaz ongi, Eneko Agerroa.»	(126)
urtziri nahi dakiola 'Urtzik nahi beza, Urtzik nahi izan	«Urtziri nahi dakiola. Esker mila eta zoaz ongi, Eneko Agerroa.»	(126)
utikan 'kanpora, alde hamendik'	«Utikan, gezur-jario! Nik ez dut ilobarik...»	(82)
uzkur 'bakarti, kikilduta'	«Mendi bizitza honek uzkur eta goibel naduka.»	(40)
xalo 'xehea, xumea'	«...Azkonbegiko jende xaloa beren oroitzak egin eta...»	(42)
zabarraldi 'arduragabekeria'	«Chilperico,Giselaren mutiko zaharrena,haurzainaren zabarraldi batez edo beronen nolabaiteko gaizkidetasunaz...»	(141)
zangar 'balent, adoretzu'	«Eusko gudari pijo eta zangar haien helburua...»	(61)
zartatu 'arraildu, printzatu'	«—Bihotza zartatua uzten didak, Eneko...»	(53)
zauli 'zinbela, malgua'	«Haren gerri mehe eta zauliak...»	(51)
zital 'setatia, tematsua'	«...arrotz zitalek iparraldetik eta hegoaldetik erasotzen...»	(54)
zurri 'gisa, modu'	«...aldiz gerla bidez eta aldiz bake zurrian...»	(62)
zuta 'tente, jaiki'	«...haurtzaroan eta gaztaroan hainbeste bider miretsi zuen Behorlegiko haitz soil eta zuta gogorazten ziolarik.»	(101)